

Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa

Oinarriak

- 2020. urtea -

Energiaren Euskal Erakundea
Urkixo zumarkalea, 36-1. solairua
48011 BILBAO
Tel.: 94 403 56 00

Diruz lagunduko diren jardueren eta laguntzen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoen laburpena

1. Neurria		Motor bidezko ibilgailuak		Gehieneko diru laguntza (%) - (€)			
Linea 1.1	Ziklomotor elektrikoak			%20		750 €	
Linea 1.2	Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak			%15		50.000 €	
Linea 1.3	Material mugikor elektrikoak			%20		20.000 €	
Linea 1.4	Gas naturaleko ibilgailu astunak			%15		18.000 €	
Linea 1.5	Ibilgailu astunak gas naturaleko ibilgailu bihurtzea			%40		5.000 €	
Linea 1.6	Gas naturaleko material mugikorra			%10		10.000 €	
Linea 1.7	Hidrogenoko ibilgailu astunak			%20		50.000 €	
Linea 1.8	Hidrogenoko material mugikorra			%20		20.000 €	
2. Neurria		Karga elektrikoak eta erregai alternatiboak		Gehieneko diru laguntza (%) - (€)			
Linea 2.1	Eraikinetako garaje kolektiboetan enbor-instalazioak	%100		[Toki kopurua] x 200 €%			
Linea 2.2	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak	%30		100.000 €			
Linea 2.3	Gas naturalez edo hidrogenoz hornitzeko instalazioak	Hornitutako erregaia		Pribatuak		Publikoak	
		GNC	%12,5	25.000 €	%25	50.000 €	
		GNL	%12,5	37.500 €	%25	75.000 €	
		GNL+GNC edo GN bus RSU	%12,5	50.000 €	%25	100.000 €	
		Hidrogenoa	%12,5	30.000 €	%25	60.000 €	
3. Neurria		Bizikletaren sustapena		Gehieneko diru laguntza (%) - (€)			
Linea 3.1	Bizikletaren erabilera lan-arloan sustatzea			[Biz. kon. kopurua] x 100 + [Biz. elek. kopurua] x 350 + [Ainguratze kopurua] x 100 €		%25	10.000 €
Linea 3.2	Kargako trizikloak			%25		1.500 €	
Linea 3.3	Bizikletak mailegatzeko sistema publikoak			[0,7 ≤ F ≤ 1] x (20.000 + [Biz. kon. kopurua] x 75 + [Biz. elek. kopurua] x 300 + [Ainguratze kopurua] x 400) €		%50	50.000 €
Linea 3.4	Bizikletak segurtasunez aparkatzea	PMUS/PTCA kanpo				%25	250 €
		PMUS/PTCA barne				%40	400 €
4. Neurria		Energia azterlanak		Gehieneko diru laguntza (%) - (€)			
Linea 4.1	Floten energia auditoriak eta azterlanak	Energia auditoria integralak:				%75	20.000 €
		Gainerako azterlanak				%50	10.000 €
		Erregaien inguruko auditoriak				%50	10.000 €
5. Neurria		Proiektu bereziak		Gehieneko diru laguntza (%) - (€)			
Linea 5.1	Proiektu bereziak			PMUS/PTCA kanpo		PMUS/PTCA barne	
		4 pun.	%45	54.000 €	%50	60.000 €	
		3 pun.	%35	42.000 €	%40	48.000 €	
		2 pun.	%25	30.000 €	%30	36.000 €	
		1 pun.	%15	18.000 €	%20	24.000 €	

Taula hauek laborpen moduan azaltzen dira, eta ez dute zehaztasunez azaltzen diru laguntzen kalkulua. Desadostasunik izanez gero, oinarri hauetan adierazten dena izango da balioduna.

Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa

1. Programaren helburua eta diru laguntzaren izaera

- 1.1. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren helburuekin bat etorriz, 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) dokumentuan zehazten denez, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

Horrexegatik, hain zuzen ere, energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea helburu nagusizat duen laguntzen programa (aurrerantzean “**laguntza programa**”) hau arautzen dituzten oinarriak eratu dira; hartara, salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean energiaren kontsumoa arrazionalizatzeari eta petrolioarekiko mendekotasuna murrizteari begira, garraio modu efizienteagoak lortzera, energia berriztagarriak erabiltzera, energiari dagokionez efizienteagoak diren teknologiak erabiltzera eta karga elektrikoa gauzatzeko eta erregai alternatiboz hornitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eskuratzera bideraturiko inbertsioak, proiektuak edo planak sustatuz. Aipatutako horiek guztiak Euskal Autonomia Erkideagoan (aurrerantzean “**EAE**”) gauzatu eta eraman behar dira aurrera.

Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **bi milioi (2.000.000) eurokoa** da. Betiere, horretarako Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “**EEE**”) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

- 1.2. Dirulaguntza orokorrez diharduen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera (aurrerantzean “**LGS**”), 2020ko urtarrilaren 3an egindako bileran, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “**EEE**”) Zuzendaritza Kontseiluak erabaki zuen, besteak beste, 2020ko EEEn Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.
- 1.3. Laguntza programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira. Diru laguntzen programaren deialdi honek badu aurrekontu-kreditu nahikoa EEEn aurrekontuetan, 2020ko ekitaldirako.
- 1.4. Laguntza programa hau eta bere aplikazioaren ondorioz ematen diren diru laguntzak bateragarriak diren barne-merkatuarekin, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua 3. atalean xedatzen denari jarraiki, Itun horren 108. artikuluan adierazten den batzordeari jakinarazi beharretik salbuetsita egonik.

Laguntza programa honetan aurreikusten diren diru laguntzak Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko UE 1407/2013 Erregelamenduaren barruan, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, minimis laguntzez diharduena (aurrerantzean “**1407/2013 Erregelamendua**”) eta Batzordearen 2012ko apirilaren 25eko UE 360/2012 Erregelamenduaren barruan daude, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen duten enpresei ematen zaizkien minimis laguntzez diharduena (aurrerantzean “**360/2012 Erregelamendua**”).

- 1.5. Laguntza programa honen arabera, 1407/2013 Erregelamenduan xedatzen denez, enpresatzat haxe hartuko da:
- Enpresatzat haxe hartuko da: “Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate, bere forma juridikoa eta finantzatzeko era edozein izanda ere.”
 - Enpresa bakartzat haxe hartuko da: “Haien artean honako erlazioren bat gutxienez izaten duten sozietate guztiak kontsideratuko dira:

- a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa badu.
- b) Enpresa batek beste enpresa baten administrazio, zuzendaritza edo kontrol organoko kide gehienak izendatzeko edo kentzeko eskubidea badu.
- c) Enpresa batek beste enpresa batean eragin nagusia edo menderatzailea ezartzeko eskubidea badu, harekin sinatutako kontratu baten ondorioz, edo bigarren enpresaren estatutu-klausularen batek eraginda.
- d) Enpresa batek, beste enpresa baten akzioduna edo elkartua, bigarren enpresaren akziodun edo bazkideekin izenpetutako akordio baten bidez, haren akziodunen boto eskubideen gehiengoa kontrolatzen badu bera bakarrik.

Enpresek, goiko paragrafoan, a) letratik d) letrara, aipatzen diren erlazioetako bat izanez gero, beste enpresa baten edo batzuen bitartez, enpresa bakartzat ere hartuko dira.

2. Onuradunak

2.1. Programa honek arautzen dituen diru laguntzez hauexek baliatu daitezke:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo beren egoitza soziala eta fiskala EAEn duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak eta etxejabeen elkarteak; betiere, 4. Oinarrian zehazten diren jardueraren bat egiteko.

Jabeen Elkarteen kasuan, nortasun juridikorik ez daukaten entitateak badira ere, diru laguntza programa honek ematen dituen laguntzez baliatzeko proiektuak egin ditzaketenez gero, elkarte horiek bete beharko dituzte LGSen (11.3 eta 13.2 artikuluetan) xedatutako betebeharrak; baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa ere (aurrerantzean, “**1/1997 Legegintza Dekretua**”).

- b) Laguntzak eskuratu ahaliko dituzte, edo onuradunak izan, halaber, helbide soziala eta fiskala EAEn ez dutelarik, honako ezaugarriak dituzten pertsona juridiko hauek: EAEn (i) beren jarduera garatzen dutenak, (ii) egoitza bat dutenak eta (iii) plantillaren zati bat atxikitzen dutenak duela bi urtez geroztik; betiere, programa hau Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian (aurrerantzean “**EHAA**”) iragarri den egunetik zenbatzen hasita.
- c) Gainera, diru laguntzak eskuratu ahaliko dituzte, edo onuradunak izan, halaber, helbide soziala eta fiskala EAEn ez dutelarik, eta aurreko b) paragrafoan adierazten diren baldintzak betetzen ez badituzten ere, diruz lagunduko den inbertsioa egiten badute 4. oinarri hauetako 2. neurriaren arabera; betiere, inbertsio horrek modu zuzenean eragina izanik energia kontsumoan edo petrolioarekiko mendekotasunaren murrizketan, jarduera egokia eta mugagabea garatuz Euskal Autonomia Erkidegoan.
- d) Halaber, EAeko udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, laguntza programa honetako 4. oinarri edo atalean aurreikusten diren jarduerak aurrera eramaten badituzte EAEn.
- e) Merkataritza sozietateak, baldin eta beren titulartasuna bere osotasunean EAeko udal batena edo batzuen dena, eta haien helburu sozialak laguntza programa honetako 4. atalean jasotzen diren jarduerak gauzatzea ahalbidetzen badu EAEn.

2.2. LGSen 13. artikuluan eta 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako pertsona edo entitate hauek izan daitezke onuradunak: diru laguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta diru laguntzen deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeak, onuraduna izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: LGSen 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

- 2.3. Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, diru laguntza eman aurretik zein diru laguntza eman gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea, eta hala badagokio, diru laguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.
- 2.4. Eskatzaileak **kontzesionarioak eta ibilgailuen salmentan edo alokairuan diharduten enpresak** izanez gero, diru laguntza programa honen **4. oinarriko 1. neurriaren** eragin esparrutik kanpo geratzen dira espreski.
- 2.5. Honako hauek ezin izango dira onuradunak izan:
- 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan eta LGSen 13.2 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden eskatzaileak, baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.
 - Legebiltzarrak onartu zuen EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna, abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresaren helburu sozialen edo jarduketan artean, osorik edo aldez, armen ekoizpen merkaturatze eta finantzaketa bada.
 - 1407/2013 Erregelamenduaren 1. artikuluan eta 360/2012 Erregelamenduan adierazitako alor batean edo batzuetan aritzen diren enpresak.

3. Programaren aurrekontua eta eskaerak aurkezteko epea

Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **bi milioi (2.000.000) eurokoa** da. Betiere, horretarako Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “EEE”) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian (aurrerantzean “EHAA”) oinarri hauek argitaratzen diren egunaren biharamuneko 08:00etan hasiko da eskabideak aurkezteko epea laguntza programa honen kontura, eta laguntza programari esleitutako diru-saila agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2020ko urriaren 31n izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Epeak zenbatzeari begira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena (aurrerantzean **39/2015 Legea**).

Aurrekontuaren bukaeraren edo agortzearen berri emango da EHAAn nahiz Interneteko EEEren helbide honetan: <http://www.eve.eus>.

Eskabideak edo eskaerak lehendik aurkeztuta egon arren, osoak eta bideratzen, eta programari urte bakoitzerako esleitutako diru saila edo aurrekontua amaitzeagatik diruz ezin bazaie lagundu, bazter egingo dira, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez. bukatu aurretik aurrekontua handitzea erabaki ezean, eta azken kasu hau gertatuz gero, bideratzen edo tramitatzen jarraituko da.

4. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta laguntzaren zenbatekoa

Programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak oinarri hauetako 4. atalean zehazten dira. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira eta honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra.

Gainera, aurrekoarekin batera, diruz lagunduko diren ibilgailu, bizikleta, triziklo edo material mugikorraren edozein tresna, edo ibilgailuaren barruan egon daitezkeen gailuen erabilera EAEn egin beharko da.

Programa honen kontura diruz lagundu daitezkeen jarduerak hauexek dira:

1. Neurria Motor bidezko ibilgailuak

Ibilgailu-kategoriak

1.1etik 1.8ra lineen barruan honako **ibilgailu-kategoria hauek** azaltzen dira:

Kategoria	Azalpena
L1e	Ziklomotorrak; Bi gurpileko ibilgailuak; ≤ 45 km/h-ko abiadura; ≤ 50 cm ³ -ko zilindrada edo ≤ 4 kW-eko potentzia.

Kategoria	Azalpena
M2	Zortzi eserleku baino gehiago dituzten ibilgailuak (gidariena ez da barruan sartzen), 5 tonatik gorakoa ez den gehieneko masa dutenak eta pertsonak garraiatzera bideraturikoak.
M3	Zortzi eserleku baino gehiago dituzten ibilgailuak (gidariena ez da barruan sartzen), 5 tonatik gorakoa den gehieneko masa dutenak eta pertsonak garraiatzera bideraturikoak.
N2	12 tona baino gutxiago eta 3,5 tonatik gorakoa den gehieneko masa duten ibilgailuak, salgaien garraiora diseinatu eta fabrikatuak.
N3	12 tonatik gorakoa den gehieneko masa duten ibilgailuak, salgaien garraiora diseinatu eta fabrikatuak.

Laguntzen Programa honen arabera, diru laguntza kalkulatu ahal izateko, renting bidezko errentamenduari begirako kasuetan, ibilgailuaren kostu teorikoaren arabera kalkulatu da diru laguntza, eta hauxe izango da: kuotaren zati hautagarria eta hau kontratuak dituen kuoten kopuruaz biderkatua. Kuotaren zati hautagarria ibilgailua bera erosteko zatiari dagokio, eta horren barnean ez da bestelako kontzepturik, hala nola mantentzea, zergak eta aseguruak. Eskaintzean zein renting bidezko kontratuan, kuota zehaztuta edo behar bezala azalduta, ibilgailuaren erosketari dagokion zatia argi eta garbi agertzeko moduan.

1.1 linea: Ziklomotor elektrikoak

- L1e kategoriako **ibilgailu elektrikoak**.
- Bateriaren masaren energia-dentsitatea 100 Wh/kg-tik gorakoa izango da. Berezko ezaugarriak kontuan izanik, litiozko ioiez (Li) osatutako bateria guztiek baldintza hori betetzen dutela kontsideratuko da.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 750 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehunekoa %20 izango da, hauta daitekeen kostuaren edo kostu lagungarriaren (ibilgailuaren kostua) aldean.

1.2 linea: Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak

- Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak, M2, M3, N2 eta N3 kategorietakoak, 3.500 kg-tik gorako Baimendutako Gehieneko Masa (MMM) dutenak, karga daitezkeen baterien bitartez soilik elikatzen direnak.

Bateriaren masaren energia-dentsitatea 100 Wh/kg-tik gorakoa izango da. Berezko ezaugarriak kontuan izanik, litiozko ioiez osatutako bateria guztiek baldintza hori betetzen dutela kontsideratuko da.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehunekoa %15 izango da, kostu lagungarriaren (ibilgailuaren kostua) aldean.

Bateriak alokatzen diren kasuetan, kostu lagungarria hauxe izango da: zergen aurretiko ibilgailuaren beraren erosketaren prezioaren batura (BEZik gabe eta matrikulazio-zergarik gabe) eta baterien alokatzeari dagokion 48 hileko kuota (4 urteko gehieneko baliokidea).

1.3 linea: Material mugikor elektrikoa

- Material mugikor elektrikoa, garraio-zereginei loturikoa aireportuetan, portuetan, meatze-jardueretan, industria-jarduera eta zerbitzuetan, eta abar.

Bateriaren masaren energia-dentsitatea 100 Wh/kg-tik gorakoa izango da. Berezko ezaugarriak kontuan izanik, litiozko ioiez osatutako bateria guztiek baldintza hori betetzen dutela kontsideratuko da.

Diru laguntza linea honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: ibilgailuak, furgonetak, bizikletak, trizikloak eta neurri honetako beste linea batzuek aintzakotzat hartzen duten, edo ez (ibilgailu elektriko purua, kasu) ibilgailu oro.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %20 izango da, kostu lagungarriaren (gailua eta bere instalazioa) aldean.

1.4 linea: Gas naturaleko (GNK edo GNL) ibilgailu astunak

- Gas naturaleko ibilgailu astunak, M2, M3, N2 eta N3 kategoriakoak, 3.500 kg-tik gorako MMA dutenak.

Osorik edo partzialki gas natural bidez (konprimatua, GNK, zein likidotua, GNL) funtziona dezaketen ibilgailuak hartuko dira hautagarritzat, hau da:

- Bi-fueleko edo bi erregaiko ibilgailuak, Otto ziklokoak, gasolina eta gas naturala txandaka erabiltzen dutenak.
- Dual-fueleko edo erregai dualeko ibilgailuak, Diesel ziklokoak, gasolioa gas naturalarekin nahastuta erabiltzen dutenak.
- Gas naturalera dedikaturiko ibilgailuak.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %15 izango da, kostu lagungarriaren (ibilgailuaren kostua) aldean.

1.5 linea: Ibilgailu astunak gas naturaleko ibilgailu bihurtzea

- Ibilgailu astunak guztiz edo aldez bihurtzea, gas natural bidez, konprimatua (GNK) nahiz likidotua (GNL). M2, M3, N2 eta N3 kategoriakoak eta 3.500 kg-tik gorako MMA dutenak, eta gasolina- edo gasolio-motordunak.

Euro V eta Euro VI kategoriako diren ibilgailuen bihurtzea baino ez da diruz lagunduko.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %40 izango da, kostu lagungarriaren (gailua eta bere instalazioa) aldean.

1.6 linea: Gas naturaleko material mugikorra

- Material mugikorra gas natural bidez, matrikulatzeko betebeharrarekin eta gabe, garraio-zereginei loturikoa aireportuetan, portuetan, meatze-jardueretan, industria-jarduera eta zerbitzuetan, eta abar.

Diru laguntza linea honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: ibilgailuak, furgonetak, bizikletak, trizikloak eta neurri honetako beste linea batzuek aintzakotzat hartzen duten, edo ez (gas naturaleko ibilgailua, kasu) ibilgailu oro.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %10 izango da, kostu lagungarriaren (gailua eta bere instalazioa) aldean.

1.7 linea: Hidrogenoko ibilgailu astunak

- **Hidrogenoko ibilgailu astunak.** M2, M3, N2 eta N3 kategoriakoak eta 3.500 kg-tik gorako MMA dutenak.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %20 izango da, kostu lagungarriaren (ibilgailuaren kostua) aldean.

1.8 linea: Hidrogenoko material mugikorra

- Material mugikorra hidrogeno bidez, matrikulatzeko betebeharrarekin eta gabe, garraio-zereginen loturikoa aireportuetan, portuetan, meatze-jardueretan, industria-jarduera eta zerbitzuetan, eta abar.

Diru laguntza linea honetatik kanpo geratzen dira honako hauek: ibilgailuak, furgonetak, bizikletak, trizikloak eta neurri honetako beste linea batzuek aintzakitatzat hartzen duten, edo ez (hidrogenoko ibilgailua-erregai zelulak, kasu) ibilgailu oro.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %20 izango da, kostu lagungarriaren (gailua eta bere instalazioa) aldean.

Erosketa, leasinga eta rentinga

Honako aukera hauek daude:

- Jabetza erako ibilgailu berrien erosketa.
- Leasing finantzario bidezko finantzaketa egiten diren erosketak.
- Renting-leasing bitarteko errentamendua.

Renting kontratuek zigor-klausula bat eduki beharko dute aldez aurreko ezerezteko edo deuseztatzeagatik, ordaintzeko leudekeen kuoten %50 izango litzatekeena, gutxienez. Kontratuek 4 urteko iraupena izango dute, gutxienez.

- Ibilgailu astunak gas naturaleko ibilgailu bihurtzea.

2. Neurria Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak

2.1 Linea: Eraikinetako garaje kolektiboetan enbor-instalazioak

- **Garaje kolektiboetan enbor-instalazioak,** BT-52 Jarraibide Tekniko Osagarriaren 1a edo 1b eskemetan oinarrituak.

Jarduera dimentsionatu egingo da, gutxienez garajeko tokien edo plazaren %15 elikatu ahal izateko.

Garaje kolektiboak 120 toki edo gehiago edukiz gero, jarduerak hiru (3) enbor-instalazio independente, gutxienez, jartzea ahalbidetuko du, eta horietako bakoitzak sei (6) karga-puntu elektrifikatzeko ahalmena izango du. Enbor-instalazio bakoitzak, gainera, honako hau izango du: banakako deribazioa egin ahal izateko kanalizazioa, behe tentsioko koadro orokor bat eta zirkuitu kolektiborako edo garajeko barne-gune komunerako kanalizazioa. Enbor-instalazioaren diseinuak honako ezaugarri hauek eduki behar ditu: banakako kargagailu batera deribazioa 20 m baino laburragoa izango da aparkalekuko edozein tokitan, zirkuitu kolektiborako edo garajeko barne-gune komunerako kanalizaziotik garajeko tokia edo plazaren instalazioa dagoen lekuraino neurtuta.

Aipatutako instalazioa elektrikoa eraikitzeari begira, bandejei, hodie, euskarriari eta, oro har, behar diren tresna guztiei dagozkien obren kostua hautagarritzat joko da. Gainera, tokietako karga-puntura bideratzeko edo deribatze erabiliko diren hiru zirkuitu kolektiboetako baten material elektrikoaren (kableak, kontagailuak eta abar) kostua hautagarritzat hartuko da.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntza kostu lagungarriaren %100 izango da, eta diruz lagunduko den enbor-instalazioaren dimentsionamenduko aparkaleku-toki bakoitzeko gehieneko diru laguntzaren zenbatekoa 200 eurokoa izango da. Linea honetan BEZa diruz lagunduko den gastutzat hartuko da, baldin eta eskatzailearen izaera juridikoa dela eta, berreskuratzeko edo berdintzeko aukerarik badago.

2.2 Linea: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak

- **Bateriak kargatzeko sistemak ibilgailu elektrikoetarako**, publikoak edo pribatuak, bai erosketazuzenaren bidezkoa, bai renting bidezko finantzaketarekin egiten direnak.

Honako hauek joko dira diruz laguntzeko kostutzat: proiektua; obra zibila; kabletzeko ingeniari-tza eta obra-zuzendaritza; eta kableatuaren instalazioa, zirkuitua deribatzen den azken kaxa elektrikoetik ibilgailua kargatzeko konektatzen den konexio-punturaino, azken hori ere diruz laguntzekoa. Diruz laguntzekoak dira, era berean, kargagunean integraturiko ordainketa-sistema, kargaguneen seinaleztapena, eta kudeaketa, kontrol eta segurtasuneko sistema.

Ez da diruz laguntzeko kostutzat joko kontagailu adimendunak instalatzea, halakoak argindar-konpainiek eman beharko baitizkiete kontsumitzaileei (azken erabiltzaileak edo kargaren kudeatzaileak), alokairuan eskuarki.

Kargatze-azpiegiturak erabilera hauek izan ahalko ditu:

- a) Erabilera pribatua bizitegi-sektorean.
- b) Erabilera publikoa bizitegi besterako sektorean (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritza-guneak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kiroldegia, etab.).
- c) Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, norberaren flotari zerbitzu emateko.
- d) Erabilera publikoa enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, beren langile eta bezeroei zerbitzu emateko.
- e) Erabilera publikoa bide publikoan, hiri-barruko eta hiriarteko bide-ardatzetan eta enpresetan.
- f) Erabilera publikoa bide-sarean, interes bereziko izanik zerbitzugune eta gasolindegietako kargatze-azpiegitura.
- g) Autobusen aukera-karga pantografo bidez.

Kargatzeko sistemek baldintza hauek bete beharko dituzte –salbu eta g) kasuan, horrek aplikagarria zaion araudia bete beharko baitu–:

- Behe-tentsioan konektaturiko instalazioetarako, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa betez, zehazki, ITC-BT-52:
 - Kokapenaren arabera IP eta IK babes-maila egokia, BTEEri jarraituz.
 - Elikatzea: monofasikoa edo trifasikoa, 230-400 VAC. Gutxienez, 3. moduarekiko bateragarritasun osoa IEC 61.851-1; eta, gutxienez, 2. motako konektorea izan behar du, IEC 62.196-2 arauaren arabera, energia-neurketa integratutakoa.
 - Segurtasun-araudiaren arabera babes elektrikoak.
 - EB edo CE deklarazioa.
- Karga publikorako, gainera, konektagarritasuneko baldintza hauek bete beharko dira:
 - Ethernetera konektatzeko interfazea eta datu-biltegitratze lokalerako memoria, operazioko bi hilabete biltegitratzeko, gutxienez.
 - OCPP v1.5 protokoloarekiko edo goragoko bertsio batekiko bateragarritasuna, web-zerbitzuak erabiliz (SOA); eta gorako bertsioetara eguneratu ahal izatea.

- Erabiltzailearen identifikazio lokala, RFID ukipen-txartelaren bidez, ISO 14443A arauaren arabera, edo identifikazio-sistema baliokidea.
- Potentziaren eta transferitutako energiaren neurketa.
- Komunikazio mugikorreko 3G/GPRS modulua edo goragokoa, edo beste edozein komunikazio-kanal baliokide.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa izango da, eta diru laguntzaren ehunekoak %30 izango da, kostu lagungarriaren aldean.

2.3 Linea: Gas naturalez edo hidrogenoz hornitzeko instalazioak

- **Hornitzeko Instalazio berriek** jasoko dute diru laguntza, honako mota hauetakoak izan beharko dira:
 - Gas naturala
 - Hidrogenoa

Linea honetako jardueren diru laguntzaren ehunekoak eta gehieneko mugak hauexek dira:

Hornitutako erregaia	Diru laguntza			
	Sarbidet pribatua		Sarbidet publikoa	
	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)
GNC	%12,5	25.000 €	%25	50.000 €
GNL	%12,5	37.500 €	%25	75.000 €
GNL + GNC	%12,5	50.000 €	%25	100.000 €
Hidrogenoa	%12,5	30.000 €	%25	60.000 €

Zerbitzu-flotei gas naturalez hornitzeko instalazioak, hala nola garraio publikoa eta hiri hondakin solidoen bilketa, udalen, udalen mankomunitateen, kuadrillen, batzar administratiboen, udal elkarten, tokiko garapen agentzien, edo antzeko erakunde publikoen jabetzakoa edo haiek kontratatua, honako diru laguntzaren ehunekoak eta gehieneko mugak izango dituzte:

Hornitutako erregaia	Gehieneko diru laguntza			
	Hornidura publikorik gabe		Hornidura publikoarekin	
	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)
Gas naturala	%12,5	50.000 €	%25	100.000 €

3. Neurria Bizikletaren sustapena

3.1 Linea: Bizikletaren erabilera sustatzea lan-arloan

- **Bizikletaren erabilera sustatzea lan-arloan**, garraibide moduan erabiltzeko, dela itinere bidaietan, dela zerbitzuan, edo bietan.
Ibilgailuen Araudi Orokorrak (22. artikulua) eskatzen dituen tresnez hornituta egongo dira bizikletak, elektrikoak ala ez, jatorritik:
 - Txirrina edo tinbrea.

- Aurreko eta atzeko posizio-argiak.
- Atzeko katadioptrikoa.

Bizikleta elektrikoaren kasuan (pedaleo lagunduta), eduki behar dituzten osagaiak eta baldintzak hauek dira:

- 250 W-etik gorakoa ez den potentziako motor elektrikoa izatea, muskulu-ahaleginari laguntzeko, laguntza emateari utziko dio honako kasuetan:
 - Pedalei eragiteari uztean.
 - Abiadura 25 km/h-tik gorakoa bada.
- Bateriaren masaren energia-dentsitatea 100 Wh/kg izango da gutxienez. Energia-dentsitatea kalkulatzeko, fabrikatzaileak deklaraturiko bateriaren kapazitatearen (Ah), tentsioaren (V) eta pisuaren (Kg) balioak erabiliko dira. Bateriaren pisuan gorputz osoa sartzen da, bizikletatik ateratzen den bezala. Berezko ezaugarriak kontuan izanik, litiozko ioiez (Li) osatutako bateria guztiek baldintza hori betetzen dutela kontsideratuko da.

Laguntza eskuratzeko, enpresek bizikletak garraiorako erabiltzen dituztela justifikatu beharko dute, baita ibilgailu motordun pribatua ordeztearen ondorioz espero den urteko energia-aurrezpena ere. Hori justifikatzeko, txosten bat aurkeztuko da, eta bertan, gutxienez, informazio hau azalduko da:

- Ibilgailuen erabilera ordezkatzeko planaren deskribapena, eta horien ordezkatzeko bizikletak erabiltzea. Planean bidaia motak, baimenduriko langileak, aurreikuspenen arabera, ordezkatzeko den km kopurua, eta ondorioz, energiaren aurrezpena adieraziko dira.
- Ordezkatzeko plana osatzen duten bizikleten zerrenda, marka, modeloa eta mota (konbentzionala edo elektrikoa) zehaztuta.
- Ordezkatzeko planean bilduriko beste osagai edo material batzuen zerrenda.
- Ordezkatzeko planaren arabera, bizikleta erabiliz saihestu nahi diren ibilgailu motordun motak.

Batez beste, ibilgailu motordun pribatuaren erabileraren urtean 400 km gutxienez ordeztu beharko ditu bizikleta bakoitzak.

Laguntza-linea hauetatik kanpo geratzen dira pedaleorik gabe, eta azeleragailuen edo beste edozein eragingailuren bidez ibitzeko gai diren bizikleta elektrikoaren ezaugarrien antzekoak dituzten ibilgailuak.

Laguntza-linea honetaz, enpresez gain, autonomoak ere balia daitezke.

Errepideko edo mendiko bizikletak ez dira diruz lagunduko, baldin eta kirola egiteko diseinatu badira.

Aipatutako 22. artikulua arabera hornitu edo ekipatuko diren bizikletak izango da diruz lagunduko den inbertsioa, baita era egokian erabiltzeko beharrezkoak diren beste zenbait elementu, hala nola kaskoak, giltzarrapoak, zirak eta ainguratzeko gailuak.

Honako adierazpide honen emaitza izango da diru laguntzaren zenbatekoa:

$$\text{Diru laguntzaren zenbatekoa} = (100 \cdot N + 350 \cdot BE + 100 \cdot A) \text{ €}$$

Azalpena:

- N Bizikleta konbentzionalen kopurua
- BE Bizikleta elektrikoaren kopurua (lagunduriko pedaleoa)
- A Ainguraketa edo finkagailu kopurua

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa (BEZik gabe) izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %25 izango da, kostu lagungarriaren aldean.

3.2 Linea: Kargako trizikloak

- **Kargako trizikloak, lagunduriko pedaleokoa (elektrikoak) edo ez.**

Trizikloak lagunduriko pedaleokoa (elektrikoak) badira, UNE-EN 15194: 2019 arauaren eskakizunak betetzeaz gain, osagaien eta baldintzen ezaugarriak hauexek izango dira:

- 250 W-etik gorakoa ez den potentziako motor elektrikoa izatea, muskulu-ahaleginari laguntzeko, laguntza emateari utziko dio honako kasuetan:
 - Pedalei eragiteari uztean.
 - Abiadura 25 km/h-tik gorakoa bada.
- Bateriaren masaren energia-dentsitatea 100 Wh/kg izango da gutxienez. Energia-dentsitatea kalkulatzeko, fabrikatzaileak zertifikatutako bateriaren kapazitatearen (Ah), tentsioaren (V) eta pisuaren (Kg) balioak erabiliko dira. Bateriaren pisuan gorputz osoa sartzen da, bizikletatik ateratzen den bezala. Berezko ezaugarriak kontuan izanik, litiozko ioiez (Li) osatutako bateria guztiek baldintza hori betetzen dutela kontsideratuko da.
- Gutxienez, 50 kg salgai garraiatzeko gai izatea.

Laguntza-linea hauetatik kanpo geratzen dira pedaleorik gabe, eta azeleragailuen edo beste edozein eragingailuren bidez ibitzeko gai diren triziklo elektrikoaren ezaugarrien antzekoak dituzten ibilgailuak.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa (BEZik gabe) izango da, eta diru laguntzaren ehuneko %25 izango da, kostu lagungarriaren aldean.

3.3 Linea: Bizikletak mailegatzeko sistema publikoak (udal bicisharing)

Diru laguntza linea hau hauentzat baino ez da: udalak, udalen mankomunitateak, kuadrillak, batzar administratiboak, udal elkarteak, tokiko garapen agentziak, edo antzeko erakunde publikoak, baita dagokion esparru geografikoan zerbitzu mota hau emateko esleipendun geratu diren erakunde publiko edo pribatuak.

- **Bizikleta berriak mailegatzeko sistema publikoak**

- Proiektu bakoitzeko gutxieneko bizikleta eta ainguraketa kopurua 50 eta 75 izango da, hurrenez hurren. Dauden sistemak zabaltea edo handitzea xede duten proiektuen kasuan, baldintza hori ez zaio handitzeari aplikatuko, sistema osoari baizik.
- Zonaldeko garraio-sarearen tarifa-sistemaren barruan integratuta egongo da proiektua, edo geltokien kokapena honako ezaugarri hauen arabera justifikatuko da:
 - ✓ Metro, tren, autobus edo tranbia geltokietatik hurbiltasuna.
 - ✓ Jende asko bertaratzen den zentroen hurbiltasuna.
 - ✓ Auzo, eta, oro har, biztanle-dentsitate handia duten tokietako garraio-sarearen konexioaren hobekuntza.
- Mailegu sistema berriaz diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez kudeatuko da, eta erabiltzaileari ahalbidetuko dio bizikleta modu automatikoan jasotzea eta entregatzea.

Honako adierazpide honen emaitza izango da diru laguntzaren zenbatekoa:

$$\text{Diru laguntzaren zenbatekoa} = F \cdot (20.000 + 75 \cdot N + 300 \cdot BE + 400 \cdot A) \text{ €}$$

Azalpena:

- N Elektrikoak ez diren bizikletak
- BE Lagunduriko pedaleoa duten bizikletak (elektrikoak)
- A Ainguraketak
- F Proiektu motaren araberako faktorea

F faktorearen hasierako balioa 0,70 da, eta 0,1 areagotuko da, proiektuak betetzen dituen baldintza hauetako bakoitzeko (F faktorearen gehieneko balioa 1,0 izango da):

- 1- Irigarritasun unibertsala. Erabiltzaileak sistemaren bizikletak erabili ahal ditu alde zurretiko gestiorik egin gabe eta zerbitzuan alta hartu gabe.
- 2- Sistema bateragarria. Sistema hau bateragarria da udalerrri mugakideetan dauden beste sistema batzuekin; izan ere, bizikletak trukagarriak dira, eta erabiltzaileak sistema horietako batean alta ematen badu, gainerako sistemetako bizikletak erabili ahal izango ditu. Ulertuko da baldintza hori beteko dela aurkezturiko proiektuak gutxienez bi (2) udalerrri hartzen baditu, nahiz eta lehendik dagoen sistema mugakide batekiko bateragarria ez izan.
- 3- Mugikortasun-plana duen eremu geografikoa. Proiektua aurretiko hiri-mugikortasun iraunkorreko plan batean ezarritako helburuetan oinarritzen da. Plan bat dagoela egiaztatu beharko da laguntza eskatzen denean.

Linea honetako jarduerari dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa (BEZik gabe) izango da, eta diru laguntzaren ehunekoa %50 izango da, kostu lagungarriaren aldean.

Egungo sistemen zabalpenari dagokionez, honako adierazpide honen emaitza izango da diru laguntzaren zenbatekoa:

$$\text{Diru laguntzaren zenbatekoa} = F \cdot (20.000 \cdot X + 75 \cdot N + 300 \cdot BE + 400 \cdot A) \text{ €}$$

Azalpena:

- N Elektrikoak ez diren bizikleta berriak
- BE Lagunduriko pedaleoa duten bizikleta berriak (elektrikoak)
- A Ainguraketa berri kopurua
- F Proiektu motaren mendeko faktorea
- X Ainguraketa berrien eta ainguraketa guztizkoen arteko proportzioa:

$$X = \frac{\text{Ainguraketa berrien kop. (A)}}{\text{Ainguraketa guztizkoen kop.}}$$

F faktorearen hasierako balioa 0,70 da, eta 0,1 areagotuko da, proiektuak betetzen dituen baldintza hauetako bakoitzeko (F faktorearen gehieneko balioa 1,0 izango da):

- 1- Irigarritasun unibertsala. Erabiltzaileak sistemaren bizikletak erabili ahal ditu alde zurretiko gestiorik egin gabe eta zerbitzuan alta hartu gabe.
- 2- Sistema bateragarria. Sistema hau bateragarria da udalerrri mugakideetan dauden beste sistema batzuekin; izan ere, bizikletak trukagarriak dira, eta erabiltzaileak sistema horietako batean alta ematen badu, gainerako sistemetako bizikletak erabili ahal izango ditu. Ulertuko da baldintza hori beteko dela aurkezturiko proiektuak gutxienez bi (2) udalerrri hartzen baditu, nahiz eta lehendik dagoen sistema mugakide batekiko bateragarria ez izan.

3- Mugikortasun-plana duen eremu geografikoa. Proiektua aurretiko hiri-mugikortasun iraunkorreko plan batean ezarritako helburuetan oinarritzen da. Plan bat dagoela egiaztatu beharko da laguntza eskatzen denean.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa (BEZik gabe) izango da, eta diru laguntzaren ehunekoa %50 izango da, kostu lagungarriaren aldean (sistemaren zati berria dagoeneko funtzionatzen ari dena gaineratzeko beharrezkoa den inbertsioa).

3.4 Linea: Bizikletak segurtasunez aparkatzea

- **Bizikletak segurtasunez aparkatzeko sistemak**, erabiltzaile partikularrentzako zein bizikletak mailegatzeko sistema publiko batentzat izan daiteke sistema hauek.

Sistema horiek kalean egon litezke, edo ibilgailuak aparkatzeko gunetan, eta kokaleku zehatzaren komenigarritasuna justifikatuko da, bizikletaren erabilera errazteari begira.

Linea honetako jardueri dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 250 eurokoa izango da kutxako eta bakarkako moduluko, eta diru laguntzaren ehunekoa %25 izango da (BEZik gabe), kostu lagungarriaren aldean. Eskatzaileak hiri mugikortasun iraunkorreko plan bat izanez gero, edo manufaktura edo zerbitzu alorreko jarduera-zentrora joateko garraio plan bat edukiz gero, diru laguntzaren ehunekoa %40 izango da (BEZik gabe), kostu lagungarriaren aldean, eta ezin izango du gainditu 400 euro banakako edo moduluko kutxa bakoitzeko.

4. Neurria Energia azterlanak

4.1 Linea: Floten energia auditoriak eta azterlanak

- **Energia auditoria integral** horrek flotaren eragiketaz diagnostiko osoa egiteaz gain, energia kontsumoa murrizteari zein petrolioaren eratorrien ordezkapenari begirako proposamenak jasoko dituen ekintza plana egin beharko da. Energia auditoriaren irismena hauxe izango da:

1. Datu orokorrak
 - a. Auditatuko den erakundearen identifikazioa.
 - b. Kostu operatiboaren egitura.
2. Flotaren deskribapena
 - a. Ibilgailuen tipologia.
 - b. Egindako zerbitzuen deskribapena.
 - c. Erabilitako erregaien azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa.
3. Flotaren funtzionamendu operatiboaren deskribapena
 - a. Ibilgailu bakoitzaren erabilera espezifikoa.
 - b. Gidarien jarduera eta gidatzeko estiloa.
 - c. Flota-kudeatzailearen jarduera eta kudeaketa operatiboan diharduten langileen jarduera.
 - d. Kudeaketa operatiboari loturiko zereginak eta prozedurak.

- e. Diren kudeatzeko sistemen deskribapena, haien tipologia eta ezaugarri teknikoak azalduz.
4. Flotaren funtzionamendu operatiboaren diagnostikoa
 - a. Flotaren kudeaketa operatiboan indarguneen eta ahulezien azterketa.
 - b. Ibilgailuak egiten duten jarduerarako egokitzapen maila.
 - c. Ibilgailu bakoitzerako energia kontsumo optimoak.
 - d. Ibilgailuei ibilbideko esleitzea.
 - e. Gidariei ibilgailuko eta ibilbideko esleitzea.
 - f. Ibilgailu optimoak eskuratzeko plana.
 5. Ekintza plana eta jarduteko proposamenak
 - a. Proposaturiko jardueraren definizioa.
 - b. Erregai eta teknologia alternatiboen erabileraren bideragarritasun plana; horren barruan, gutxienez, energia trantsizioaren bidea egiteari begira, mugikortasun elektrikoa eta gas naturalaren erabileraren inplementazioa egon behar dira.
 - c. Proposamen bakoitzaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa.
 - d. Energiaren eta ekonomiaren arloko aurrezkiak eta ingurumenean eragina.
 - e. Aurreikusitako helburuak lortzeko epeen eta arduradunen identifikazioa.
 6. Jarraipena eta kontrola
 - a. Ekintza-planaren jarraipena egiteko metodologiaren deskribapena.
 - b. Jarraipena eta kontrola egiteko adierazleen deskribapena.

Linea honetako jarduerari dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da eta diru laguntzaren ehunekoa %75 izango da (BEZik gabe), kostu lagungarriaren aldean; energia auditoria integralean sartutako ibilgailuko gehieneko diru laguntza espezifikoak 400 eurokoa izango da.

- **Energiari lotutako azterlanak**, energia kontsumoa murrizteari eta petrolioaren eratorrien diren erregaien ordezkapenari begira.

Linea honetako jarduerari dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da eta diru laguntzaren ehunekoa %50 izango da (BEZik gabe), kostu lagungarriaren aldean; energia azterlanean sartutako ibilgailuko gehieneko diru laguntza espezifikoak 200 eurokoa izango da.

- **Erregaien inguruko auditoriak**, flota baten trantsizioa lagundu nahian, erregai eta teknologia alternatibo egokien konbinaketaren erabilerari begira. Planifikazio horrek, energia trantsizioaren bidean, mugikortasun elektrikoa eta gas naturalaren erabileraren inplementazioa, gutxienez, kontuan hartuko ditu.

Linea honetako jarduerari dagokienez, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da eta diru laguntzaren ehunekoa %50 izango da (BEZik gabe), kostu lagungarriaren aldean; erregaien auditorian sartutako ibilgailuko gehieneko diru laguntza espezifikoak 200 eurokoa izango da.

5. Neurria Proiektu bereziak

5.1 Linea: Proiektu bereziak

- **Proiektu bereziak** izaera berritzailea izan behar dute, edo interes nabarmena eduki behar dute energia-kontsumoaren eta petrolio-produktuen ordezkapenaren arrazionalizazioaren ikuspuntutik.

Hiri-mugikortasun plan iraunkor batean (PMUS) oinarritutako proiektuek, edo jarduera zentrorra joateko plan batean (PTCA) oinarritutakoek diru laguntza handiagoa eskura dezakete.

Lehenago burututako energia auditoria integral batetik eratorriak eta ekintza planean sartutako proiektuek edo jarduerak linea honetan dagoen diru laguntza handiena jasoko dute.

Proiektuak honako irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- **A irizpidea:** inbertsioaren eraginkortasuna, energiaren kontsumoan izango duen eraginaren ondorioz.
- **B irizpidea:** energia aurrezpenaren garrantzia, EAEko eremuan izan dezakeen zabalkundearen edo errepikapenaren potentzialagatik.

	Puntuazioa	Azalpena
A irizpidea	2	Aurreztutako tep bakoitzeko 1.000 € baino txikiagoko inbertsioa urtean, edo ordeztutako petrolio-jatorriko erregaiaren tep bakoitzeko 500 € baino txikiagoa urtean.
	1	Aurreztutako tep bakoitzeko 1.500 € baino txikiagoko inbertsio-ratioa urtean, edo ordeztutako petrolio-jatorriko erregaiaren tep bakoitzeko 1.000 € baino txikiagoa urtean.
B irizpidea	2	Urtean proiektuak 200 tep baino handiagoa den aurrezpena dakar zuzenean, edo zeharka urtean 400 tep errepikatze potentziala izateagatik EAEn.
	1	Urtean proiektuak 100 tep baino handiagoa den aurrezpena dakar zuzenean, edo zeharka urtean 200 tep errepikatze potentziala izateagatik EAEn.

Proiektu berritzailetzat hartzeko, berriz, EAEn horrelako egitasmoetan lehen esperientzia izan beharko da, edo berrikuntza nabarmenak ekartzea, energiaren aurrezpenari edo petrolio eratorrien ordezkapenari dagokionez.

Proiektu bat errepikatze potentzialduntzat hartzeko, haren inplementazioa errepikatze aukera izan behar da EAEn; betiere energiaren aurrezpen baliokideekin.

Eskatzaileak bere diru laguntza eskaeran proiektuari dagokion puntuazioari lotutako proposamen argudiatua aurkeztuko du. EEEn ebaluazio teknikoa, eta, beraz, horren argitan lortuko dira behin betiko puntuazioak, eskatzaileak proposamenean adieraziko dituenekin bat etor daitezke ala ez.

Proiektuen diru laguntzaren gehieneko ehunekoak eta mugak hauexek dira:

Puntuazioa	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)
4 puntu eta PMUS/PTCA aurretik	%50	60.000 €
4 puntu	%45	54.000 €

Puntuazioa	Laguntzaren ehunekoak / kostu lagungarria (%)	Gehieneko diru laguntza (€)
3 puntu eta PMUS/PTCA aurretik	%40	48.000 €
3 puntu	%35	42.000 €
2 puntu eta PMUS/PTCA aurretik	%30	36.000 €
2 puntu	%25	30.000 €
1 puntu eta PMUS/PTCA aurretik	%20	24.000 €
1 puntu	%15	18.000 €

5. Hauta daitekeen kostua edo kostu lagungarria

5.1 Kostu lagungarriaren mugak

1.- Kostu lagungarriaren alderdi orokorrak

Diru laguntza programa honen arabera, 4. oinarriko linea bakoitzean ezarritakoak izango dira hauta daitezkeen kostuak edo kostu lagungarriak. Horretaz gain, dokumentu honetan azaltzen diren diru laguntzaren gehieneko ehunekoak eta gehieneko mugak ezartzean merkatuaren gainkostuetan oinarrituta finkatu dira; betiere garraio alorrean energia-kontsumoa arrazionalizatzen sustatzen laguntzeko asmoz eta petrolioaren eratorrien produktuekiko mendekotasuna murrizten laguntzeari begira.

Aipatutako helburuei lotuta zuzenean ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

2.- Beste aspektu batzuk

- Material eta esku lanari lotutako sail ekonomiko guztiak diruz lagunduko den jarduerari esleitu edo egotzi beharko zaizkio zuzenki.
- Kostu lagungarriak zerga-kenkariak edo beste zerga batzuk kontuan hartuta adieraziko dira.

5.2. Honako hauek ez dira kostu lagungarritzat hartuko:

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, edozein zerga. 2.1 linean, salbuespenez, BEZa diruz lagunduko den kostutzat hartuko da, baldin eta eskatzailearen izaera juridikoa dela eta, berreskuratzeko edo berdintzeko aukerarik ez badago.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak, pertsonal propioari dagozkionak eta lurra erosteko gastuak.
- Ekipo erabiliak eskuratzeko inbertsioak; salbuespenez, 4. oinarriko 5. neurriko 5.1 linean azaltzen diren jarduerak.
- Ez dira diruz lagunduko ibilgailu erabilien renting bidezko errentamenduak; salbuespenez, 4. oinarriko 5. neurriko 5.1 linean azaltzen diren jarduerak.
- Ekipoak eta instalazioak berritzeko edo hobetzeko inbertsioak, enpresak tokiz aldatzen duenean.
- Ekipoak eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak.
- Zerbitzariak, inprimagailuak eta, oro har, ekipu ofimatikoak erosteko inbertsioak.
- Merkatu azterlanak eta bideragarritasun azterketak edo azterlanak.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko kostu guztiak, eta ondorioz, era zuzenean identifikatzea ezinezkoak izango direnak, laguntza programa honetako 4. oinarrian aurreikusten diren jardueren inbertsioen energia helburuak lortzeari begira.

6. Diru laguntzei muga orokorrak

6.1. Diru laguntzen zenbatekoaren muga

Laguntzen programa honen kontura gauzatuko diren jardueretan, onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko diru laguntza **berrehun mila (200.000) eurokoa** izango da; gainera, ez da inola ere gaindituko proiektu mota bakoitzerako ezarritako ehunekoak, oinarri hauetako 4. atalean azaltzen direnak.

6.2. Araudi europar aplikagarria

Eskatzaileak enpresak diren kasuetan, honako hauek dira ezarritako diru laguntzen muga aplikagarriak:

- a) 1407/2013 Erregelamendua
- b) 360/2012 Erregelamendua

Beraz, enpresak diren eskatzaileei ezartzen zaizkien mugak bat datoz minimis Erregelamenduaren 3.2 eta 3.3 artikuluetan xedatutakoarekin:

- ✓ Enpresa bakar bati eman dakiokkeen guztizko laguntzen zenbatekoa ez da 200.000 eurokoa baino handiagoa izango hiru ekitaldi fiskaleko edozein epealditan.
- ✓ Besteren kontura errepedeko salgaien garraioan diharduen enpresa bakar bati eman dakiokkeen guztizko laguntzen zenbatekoa ez da 100.000 eurokoa baino handiagoa izango hiru ekitaldi fiskaleko edozein epealditan.

Minimis laguntza hauek ezin izango dira erabili errepedeko salgaien garraiorako ibilgailuak erosteko.

- ✓ Besteren kontura errepedeko salgaien garraioan aritzeaz gain, 200.000 euroko gehieneko muga aplikatzen zaion beste jarduera batzuk ere egiten baditu enpresa batek, gehieneko muga horren mende egongo da enpresa, baldin eta bermatzen bada, bitarteko egokien bidez, jardueren bereizketaz edo kostuen zehaztapenez, errepedeko salgaien garraioari lotutako jardunaren aldeko laguntzaren zatia ez dela 100.000 eurokoa baino handiagoa izango, eta minimis inolako laguntzarik ez dela erabiltzen errepedeko salgaien garraiorako ibilgailuak erosteko.

6.3. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

Laguntza Programa honen bidez ematen diren diru laguntzak bateraezinak dira beste edozein administrazio publikok edo erakundek emandako diru laguntzekin, helburu berari begira.

Beste erakunde edo administrazio batzuek emandako diru laguntzak gauzatzen badira EEEK ematen dituen diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, onuradunak EEEri jakinarazi beharko dio (**13. oinarria, e atala**).

6.4. Diruz lagunduko diren jardueren kontratazioa edo azpikontratazioa hirugarrenekin

- a) LGSen 29. artikuluan eta RGSen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, onuradun batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: diru laguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren gauzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, goraxeago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

- b) Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari

dagokionez (15.000€ zerbitzuetarako eta horniduretarako BEZik gabe eta 40.000€ obrarako BEZ gabe), onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta aukeraketa espreski justifikatuta geratu beharko da, baldin eta aukeratua kalitate-prezio erlazio onena duen proposamena ez denean.

7. Bideratzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta **Administrazio Elektronikaz** diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean **21/2012 Dekretua**), laguntza programa honi lotutako espedienteen bideratze edo izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketa eta gainerako kudeaketak), horretarako berariaz diseinatutako aplikazio informatikoa erabili beharko da. Aplikazio hori EEEn webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>. Hori guztia, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe, pertsona fisikoen kasuan.

Diru laguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatika horretaz eginez gero, era elektronikoa, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidea osatugabea, akatsekin egongo balitz, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete ezik, hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideaz diharduen 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera xedatutako ebazpena, hain zuzen ere.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoa aurkezteko. Ondorio hauetarako, eskaeraren aurkezpen data edo eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

8. Diru laguntza eskatzeko prozedura

Diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa **7. oinarrian** azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez egingo da, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan, eta **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Besterik adierazten den jardueran edo lineetan izan ezik, jarduera eta kokapen zehatz bakoitzeko eskaera bat egin beharko da.

Diru laguntza eskaera egiteko, jarduera mota bakoitzeko, aplikazio informatikoaz aurkeztu beharreko dokumentazioa hauex da:

Pertsona fisikoak

a. Diru laguntza eskabidea. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

b. Dokumentazio administratiboa

- Onuradunaren NANren kopia, eta bertan EAeko helbiderik agertu ezean, erroldatze-ziurtagiriaren kopia.
- Hala badagokio:
 - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
 - Ahalduzko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatze banketxearen ziurtagiria, haren titularrak eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztapen eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia eskaeraren egunean.

Autonomoak

a. **Diru laguntza eskabidea.** Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jardura mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Minimis diru laguntzez ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

b. Dokumentazio administratiboa

- Onuradunaren NANren kopia, eta bertan EAeko helbiderik agertu ezean, erroldatze-ziurtagiriaren kopia.
- Hala badagokio:
 - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
 - Ahalduzko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Gizarte Segurantzari, autonomo moduan kotizatzen ari dela dagozkion egiaztapen edo dokumentu ofiziala.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatze banketxearen ziurtagiria, haren titularrak eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztapen eguneratua.
- Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztapen eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia eskaeraren egunean.

Pertsona juridikoak

a. **Diru laguntza eskabidea.** Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jardura mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den

jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Minimis diru laguntzez ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

b. Dokumentazio administratiboa

- Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
- IFKaren kopia.
- Ahalduzko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
- Eskrituraren, estatutuen edo eratzeko ekitaldiaren kopia.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztigiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztigiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.

Udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak

a. Diru laguntza eskabidea. Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen jarduera mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, deklarazio hauek formalizatuko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.

b. Dokumentazio administratiboa

- Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
- Alkate edo kargu hautatzeko ziurtagiriaren kopia.
- IFKaren kopia.
- Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztigiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztigiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboen kopia eskaeraren egunean.

Etxejabeen elkarteak

- a. **Diru laguntza eskabidea.** Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen proiektu mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira. Era berean, deklarazio hauek formalizatuko dira:
- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
 - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
- b. **Dokumentazio administratiboa**
- Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
 - IFKaren kopia.
 - Elkarteko presidente hautatzeko aktaren kopia.
 - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra eskatzailea izan beharko da. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, eta eskatzaileak onuraduna izateko egokiera bereganatu eta gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
 - Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagirri eguneratua.
 - Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagirri eguneratua.
 - Kasu kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia eskaeraren egunean.

Pertsona fisikoak, autonomoak, pertsona juridikoak, udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak eta etxejabeen elkarteak

c. Dokumentazio teknikoa

1. Neurria Motor bidezko ibilgailuak	1.1 Linea: Ziklomotor elektrikoak 1.2 Linea: Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak 1.3 Linea: Material mugikor elektrikoak 1.4 Linea: Gas natural bidezko (GNK edo GNL) ibilgailu astunak 1.5 Linea: Ibilgailu astunak gas naturaleko ibilgailu bihurtzea 1.6 Linea: Gas naturaleko material mugikorra 1.7 Linea: Hidrogenoko ibilgailu astunak 1.8 Linea: Hidrogenoko material mugikorra
---	--

- Salerosketa-kontratu zehatzaren fotokopia, edo aurretiazko faktura. Renting bidezko errentamenduaren kasuan, enpresa errentatzailearen eskaintzaren kopia, eta bertan ordaindu beharreko kuota agertzearekin batera, ibilgailuaren kostuari dagokion kuotaren zatia.
- Ibilgailu astun elektriko puruen kasuan, baterien alokairua izanez gero, alokairu horren kontratuaren fotokopia.
- Ibilgailu astun elektriko puruen, hibrido entxufagarrien edo autonomia handitutako elektrikoaren kasuan, fabrikatzailearen datu edo ezaugarri teknikoaren kopia, eta bertan, bateria litiozko ioiez osatua dela agertuko da, edo bestela, bateriaren energia-dentsitatea (Wh/kg) azalduko da, edo bestela, honako datu hauek:
 - Bateriaren pisua (kg).

- Ahalmena (Ah).
- Tentsioa edo voltajea (V).
- Gas natural edo hidrogeno bidezko ibilgailuei dagokienez, fabrikatzailearen ezaugarri teknikoen kopia, eta bertan propultsio sistema (gas naturala edo hidrogeno) azaldu beharko da.

2. Neurria Karga elektrikoa eta erregai alternatiboak	2.1 Linea: Eraikinetako garaje kolektiboetan enbor-instalazioak 2.2 Linea: Ibilgailu elektrikoa kargatzeko puntuak 2.3 Linea: Gas naturalez edo hidrogenoz hornitzeko instalazioak
--	--

- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak. Ibilgailu elektrikoa kargatzeko puntuaren alokairua izanez gero, alokairu horren kontratuaren fotokopia.
- Proiektuaren ezaugarriak izango dituen deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa; bertan, gutxienez, hauxe azaldu beharko da:
 - Kargatzeko instalazioaren ezaugarri teknikoak (konektore mota, potentzia).
 - Instalazioaren eskema elektrikoa.
 - Kargagunea kokatuko den lekuaren planoak.

3. Neurria Bizikletaren sustapena	3.1 Linea: Bizikletaren erabilera lan-arloan sustatzea 3.2 Linea: Lagunduriko pedaleoa duten kargako trizikloak (elektrikoak) 3.3 Linea: Bizikletak mailegatzeko sistema publikoak (udal bicisharing) 3.4 Linea: Bizikletak segurtasunez aparkatzea
--	---

- **3.1 Linea, bizikletaren erabilera lan-arloan sustatzeari buruz**
 - Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
 - Proiektuaren ezaugarriak izango dituen deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa, honako atal hauek eduki behar dituena:
 - Sistemaren funtzionamenduaren deskribapena; bertan, besteak beste, joan-etorri motak eta baimendutako pertsonala.
 - Sistema osatzen duten bizikleten zerrenda, eta bertan marka, modeloa eta mota (konbentzionala edo elektrikoa) azalduko dira.
 - Proiektuan sartzen diren beste material batzuen zerrenda.
 - Urtean egingo den distantzia erabiltzean.
 - Ordezkatzeko asmoa den ibilgailu motordun mota.
 - Aurreikusitako energiaren aurrezpena urtean.
- **3.2 Linea, lagunduriko pedaleoa duten kargako triziklo elektrikoari buruz**
 - Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
 - Fabrikatzailearen zehaztapen teknikoen kopia, eta bertan bateria litiozko ioiez osatua dela agertuko da, edo bestela, bateriaren energia-dentsitatea (Wh/kg) azalduko da, edo bestela, honako datu hauek:

- Bateriaren pisua (kg).
- Ahalmena (Ah).
- Tentsioa edo voltajea (V).
- o Fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren kopia, eta bertan trizikloa garraiatzeko gai den kargako gehieneko pisua (kg) azaldu beharko da.
- **3.3 Linea, bizikletak mailegatzeko sistema publikoari buruz**
 - o Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
 - o Proiektuaren ezaugarriak izango dituen deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa, honako atal hauek eduki behar dituena:
 - Proiektuaren deskribapena, eta bertan, beste ezaugarri batzuen artean, bizikleta konbentzionalen kopurua, bizikleta elektrikoaren kopurua eta ainguratze kopurua azalduko da.
 - Mailegatzeko sistemaren kudeaketa motaren deskribapena.
 - o Mailegatzeko sistemaren eremuan dagoen hiri mugikortasun iraunkorreko planik bada, haren kopia aurkeztuko da.
 - o Bizikletak mailegatzeko zerbitzua sustatzeari begirako elkarte esleipenduna baldin bada, zerbitzua ematea arautzen duen kontratuaren kopia aurkeztuko da.
- **3.4 Linea, bizikletak segurtasunez aparkatzeari buruz**
 - o Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
 - o Proiektuaren ezaugarriak izango dituen deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa.
 - o Mailegatzeko sistemaren eremuan dagoen hiri mugikortasun iraunkorreko planik edo jarduera-zentroetara garraioeko planik bada, haren kopia aurkeztuko da.

4. Neurria Energia azterlanak	4.1 Linea: Floten energia auditoriak eta azterlanak
--	---

- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, auditoriaren edo azterlanaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa; eta bertan, kokalekuaren energia egoera globala zehaztuko da. Auditoriak, edo azterlanak honako datu hauek argitu beharko ditu aurkeztean: auditoriak edo azterlanak kontuan hartuko dituen ibilgailuen kopurua eta mota, urtean funtzionamendu-orduak, energia kontsumoak eta kostuak, langileen kopurua, txandak, energia balantzeak eta aurreikusten diren alternatiba guztien bideragarritasun azterlanak.

5. Neurria Proiektu bereziak	5.1 Linea: Proiektu bereziak
---	------------------------------

- Enpresa esleipendunaren eskaintza ekonomikoa, sailka zehaztua. Ez da inolako eskaintzarik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, proiektuaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
- Deskribapenezko memoria tekniko-ekonomikoa; eta bertan, kokalekuaren energia egoera teknikoa zehaztuko da, honako atal hauek eduki behar dituena:

- Energia-aurrezkiaren justifikazioa, edo gerta litekeen petrolio-jatorriko produktuen ordezkapenaren maila eta aurkezten den proiektuari dagozkion eta aurreikusten diren puntuazioen proposamen azaldua (A irizpidea).
- Proiektuaren izaera berritzailearen justifikazioa, eta bertan, EAEn errepikatze potentzialaren inguruko balioespena azalduko da eta aurkezten den proiektuari dagozkion eta aurreikusten diren puntuazioen proposamen azaldua (B irizpidea).
- Hala badagokio, proiektuari jarraipena egiteko adierazleak, baldin eta proiektuaren jatorria energia auditoria integral batetik eratorritako ekintza plan bat bada.
- Hiri mugikortasun iraunkorreko planik bada, edo jarduera-zentroetara garraiatzeko planik bada, haren kopia aurkeztuko da.

Dokumentu guztiak, ahal dela, PDF formatuan aurkeztuko dira.

EEEk diru laguntza eskaera behar bezala aztertzeke, beharrezkotzat jotzen dituen informazio eta dokumentu osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari.

9. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira. Eskabidea akastuna izanez gero, eta konpondu beharko balitz, aurkezpen datatzat **7. oinarrian** azaldutakoa hartuko da.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta modu elektronikoa (7. oinarrian azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez) helaraziko dio eskatzaileari jakinarazpena sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, eskatzaileek ulertu beharko dute beren diru laguntza eskabidea onartua izan dela, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatzen den bezala.

Ebazpenean honako hau azalduko da: (i) diru laguntzaren xedea den jarduera, (ii) haren zenbatekoa (kantitate gordina, onuradunaren izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk eta (iv) eskabideari ezezkoa emanez gero, haren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagoen epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean **29/1998 Legea**).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, diru laguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (LGEen 19.4 artikulua eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean **19/2013 Legea**) eta RGSa, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEE bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren diru laguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

10. Diru laguntzak ordaintzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionalak emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso.

Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean. Onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela kontuan hartzeko, hauxe izango da irizpidea: diru laguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatean epealdi betearazlean diru laguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezartzea edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrak ez ditu kontuan hartu. Era berean, onuradunek diru laguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela kontuan hartuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (RGSen 21. artikulua).

Aurkeztuko den proiektua edo azterlana bukatu ondoren, diru laguntza eskabidean azaldutakoarekin bat etorritz, EEEK emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik, justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Diruz lagunduko den jardueraren amaierari lotutako dokumentuen justifikazioa aplikazio informatika baten bidez egingo da, hasieran diru laguntza eskabidea bideratzeari begira erabiliko den aplikazio bera, 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoen kasuan.

Ordainketa eskaria egiteko, justifikatu beharreko jarduera mota bakoitzerako, argia, espezifikoa eta gaurkotua izan behar den honako dokumentazioa formalizatu eta aurkeztu beharko da:

Pertsona fisikoak

- a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:
 - Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
 - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- b. **Dokumentazio administratiboa:**
 - Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagir eguneratua.
 - Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia justifikazioaren egunean.

Autonomoak

- a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:
 - Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
 - Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
 - Minimis diru laguntzez ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- b. **Dokumentazio administratiboa:**

- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzian dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia justifikazioaren egunean.

Pertsona juridikoak

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Minimis diru laguntzez ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzian dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia justifikazioaren egunean.

Udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Onuradunak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzian dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia justifikazioaren egunean.

Etxejabeen elkarteak

a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da. Era berean, honako deklarazio hauek formalizatu beharko dira:

- Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Beste diru laguntza batzuk jaso izanaren ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.

b. **Dokumentazio administratiboa:**

- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua
- Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- Kasuan kasu, beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboaren kopia justifikazioaren egunean.

Pertsona fisikoak, autonomoak, pertsona juridikoak, udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak eta etxejabeen elkarteak

c. Dokumentazio teknikoa:

- Egindako inbertsioaren faktura zehatzak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta ekonomikoki balioztatuta, honako data hauen artean: 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

Ibilgailuak, arinak eta astunak, renting bidezko errentamendua eginez gero, renting-kontratuaren kopia, eta bertan ordaindu beharreko kuota eta, behar bezala zehaztuta, ibilgailuaren kostuari dagokion kuotaren zatia.

- Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko moduan: laguntzaren azken hartzailea; ordainketa jasotzen duen hirugarrena; ordainketa-data (balio-data); eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- Gainera, adierazten diren neurri eta linea espezifikoetarako, honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu beharko da:

1. Neurria Motor bidezko ibilgailuak	<p>1.1 Linea: Ziklomotor elektrikoak</p> <p>1.2 Linea: Ibilgailu astun elektriko puruak eta hibrido entxufagarriak</p> <p>1.3 Linea: Material mugikor elektrikoak</p> <p>1.4 Linea: Gas natural bidezko (GNK edo GNL) ibilgailu astunak</p> <p>1.5 Linea: Ibilgailu astunak gas naturaleko ibilgailu bihurtzea</p> <p>1.6 Linea: Gas naturaleko material mugikorra</p> <p>1.7 Linea: Hidrogenoko ibilgailu astunak</p> <p>1.8 Linea: Hidrogenoko material mugikorra</p>
---	---

- Ibilgailuaren txartel teknikoaren fotokopia.
- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailu astun elektriko puruei dagokienez, bateria alokatuta duten kasuan, bateriaren alokairu-kontratuaren kopia, alokairu-kontratua indarrean dagoen aldia, gutxienez 4 urte, onuradunak ordaindu behar dituen kuotak bilduko dituen.

2. Neurria Karga elektrikoak eta erregai alternatiboak	<p>2.1 Linea: Eraikinetako garaje kolektiboetan enbor-instalazioak</p> <p>2.2 Linea: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak</p> <p>2.3 Linea: Gas naturalez edo hidrogenoz hornitzeko instalazioak</p>
---	--

2.1 Linea. Eraikinetako garaje kolektiboetan enbor-instalazioak:

- Garajeen kargagunea lotuta duen ibilgailu elektriko bat dagoela egiaztatzen duen dokumentua (adibidez, ibilgailuaren zirkulazio-baimena).
- Instalazioari buruzko argazkiak.

2.2 Linea. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak:

- Instalatuak kargagunearen argazkia.

2.3 Linea. Gas naturalez edo hidrogenoz hornitzeko instalazioak:

- Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari dagokion Lurralde Ordezkaritzaren aurrean instalazioa legezztatzen duen dokumentuaren kopia.

3. Neurria	3.1 Linea: Bizikletaren erabilera lan-arloan sustatzea
Bizikletaren sustapena	3.3 Linea: Bizikletak mailegatzeko sistema publikoak (udal bicisharing)

3.1 Linea. Bizikletaren erabilera lan-arloan sustatzea:

- Egindako lanaren deskribapen-memoria, eskaeran edo eskabidean aurkeztutakoarekin ezberdintasunak izanez gero.

3.3 Linea. Bizikletak mailegatzeko sistema publikoak, honako dokumentu hauek:

- Egindako jardunaren deskribapen-memoria, inbertsioa justifikatzen den egunean sistemak dituen ezaugarriak barne (eskuragarri dauden bizikleten kopurua, ainguraketa kopurua, eta abar).

4. Neurria	4.1 Linea: Floten energia auditoriak eta azterlanak
Energia azterlanak	

4.1 Linea. Floten energia auditoriak eta azterlanak:

- Azken txostenaren kopia; bertan, auditoria egiten den tokiaren oinarritzko azalpena emango da. Horretaz gain, koadro-laburpen gisa, aztertuko diren energia eraginkortasunari eta/edo energia berriztagarrien erabilera lotutako jarduerak azalduko dira, eta gutxienez hauexek zehaztuko dira: egin beharreko inbertsioa, espero diren urteroko aurrezkiak, energia eta diru aldetik, eta jarduera bakoitzari dagokion inbertsioaren berreskurapena. Gainera, sintesiari eta ondorioei dagozkien atal zehatza izango du.

5. Neurria	5.1 Linea: Proiektu bereziak
Proiektu bereziak	

5.1 Linea. Proiektu bereziak:

- Azken txostenaren kopia; bertan, jarduera egiten den tokiaren oinarritzko azalpena emango da. Horretaz gain, koadro-laburpen gisa, aztertuko diren energia eraginkortasunari eta/edo energia berriztagarrien erabilera lotutako jarduerak azalduko dira, eta gutxienez hauexek zehaztuko dira: egin beharreko inbertsioa, espero diren urteroko aurrezkiak, energia eta diru aldetik, eta jarduera bakoitzari dagokion inbertsioaren berreskurapena. Gainera, sintesiari eta ondorioei dagozkien atal zehatza izango du.

Diru laguntzaren xedea den jarduera amaitu ondoren, eta diru laguntza emango den baieztatzeko ebazpenaren jakinarazpena jasotakoan, eta beranduenez ere 2021ko urtarrilaren 15ean, ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko da. EEEri bidaliz, posta elektronikoz, Oinarri hauetako 7. atalean azaltzen den aplikazioaz, baita goraxeago adierazitako dokumentazioa ere. Ordaintzeko eskaera eta dokumentazioaren aurkezpena ekitaldi bakarrean eta bere osotasunean egingo da onuradunaren edo bere legezko ordezkariaren aldetik. Hartara, ordaintzeko eskaera osatu gabe edo akastuna izango balitz, edo postaz zein aurrez aurre edo eskura aurkeztuz gero, hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke eskatzaileari zuzentzeko, zuzentzeko bidaliko zaion idazkiaren bidez jakinarazia, diru laguntzaren onuradunak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

Horaxeago adierazten den dokumentazio justifikagarri hori guztia jasotzeko epea ez da inola ere luzatuko EEEren aldetik. Dokumentazio justifikagarri hori guztia dagokion epean aurkeztu ezean, itzularaziko zaio zenbatekoa eta LGSen ezartzen diren gainerako erantzukizun guztiak eskatzea ekarriko du.

Aipatutako dokumentazio hori guztia jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango dio EEEK. Aurkeztutako dokumentazio justifikagarria aztertu eta gero, eta azken diru laguntzaren zenbatekoa hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar dela egiaztatuz gero, diru laguntza alde ezeztatzeko espediente bat abiarazteari ekingo zaio. Kontrara, honako egoeraren bat gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ez da epearen barruan aurkezten.
- 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean, diruz lagundutako jarduera egin dela eta dagokion fakturazioa ez dira egiaztatzen.
- Oinarri hauetan eta/edo diru laguntzez diharduen legerian ezartzen diren baldintzaren bat ez da betetzen.

Goiko hiru kasuetako bat gertatuz gero, EEEK diru laguntza osorik errebokatzeke espedienteari ekingo dio.

11. Inbertsioen egiaztatzea

Diru laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazi ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak inbertsioen egiaztatze “in situ” egin ahal izango du, eta bertan instalazioari lotutako zenbait argazki adierazgarri egingo dira, diruz lagundu eta azaldutako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz eta oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen direla bermatzeko; baita espedientearen ez legokeen eta beharrezkotzat joko duen dokumentazio guztia ere eskatu ahal izango da; betiere, diru laguntzen erabilera egoki egingo dela ziurtatu nahian.

Diru laguntza jasotako jardueraren inbertsioen egiaztatze “in situ” egingo zaien onuradunei alde aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiteko betebeharra izango dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEEK onuradunari inbertsioen egiaztatze tekniko edo ekonomikoa “in situ” egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arazoak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatze “in situ” egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK diru laguntzaren zenbatekoa errebokatzeke espedientea abiaraziko du.

Inbertsioen egiaztatze “in situ”n hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, kasuan-kasuan, EEEK diru laguntza alde edo erabat errebokatzeke espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

12. Onuradunen betebeharrak

Diru laguntzen deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. LGSen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.2. artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako diru laguntza onartzea. Diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio onuradunak, onartu egin duela ulertuko da, diru laguntzen deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainerakoen arabera.
- c. Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, diru laguntzen deialdi hau kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko.

- e. Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- f. Garatuko den egitasmoei lotutako jarduerak indarrean dagoen legeria edota araudia bete beharko dute, eta haien osagaiek dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakioken legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.
- g. Dagokion diru laguntza programaren bitartez erositako eta diruz lagundutako ibilgailuaren edo beste material mugikor baten jabeak laguntza ordaindu eta lau (4) urteko epea igaro baino lehenago ibilgailua edo material hori saltzen badu, ibilgailuaren edo material horren salmentaren kontratu-dokumentuan hauxe azaldu beharko du: inbertsio horrek 2020ko EEEn garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programaren diru laguntza jaso duela. Era berean, jabe berriak edo erosleak konpromisoa hartzen du diru laguntza eman zen helbururako erabiltzeko eta funtzionamendu egokian edukitzeko, gutxienez, aipatutako epea bete arte. Horrela ez balitz, EEEk diru laguntza osorik baliogabetzeko espedientea irekitzeari ekingo lioke.

Nolanahi ere, birsalmenta edo besterentzea erabakiz gero, EEEri jakinarazi beharko lioke, diru laguntza jasotako ibilgailuaren edo materialaren kontratu-agiria sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere.

Erosleak, aipatutako besterentzeari dagionez, agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, diru laguntzaren onuradunak jasotako diru laguntza itzultzeko betebeharra duela konpromisoa hartzen du.

- h. Renting bidezko errentamendu-kontratuei dagokienez, kontratua alde aurretik deuseztatzen edo hutsaltzen baldin bada, errentariak konpromisoa hartzen du EEEri jasotako diru laguntzaren zati proportzionala itzultzeko, 2020ko EEEn Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programari lotutako diru laguntza, hain zuzen ere. Horrela egin ezean, EEEk diru laguntza erabat edo alde baliogabetzeko edo errebotatzeko espedientea bideratzeari ekingo dio, kasuan kasu.

Horrela gertatuz gero, haren berri eman beharko zaio EEEri bi hilabeteko gehieneko epean, azken faktura ordaindu denetik kontatzen hasita.

- i. Laguntzen programa honen arabera, karga elektrikorako eta erregai alternatiboen hornidurarako azpiegituren kasuan, diru laguntza programa honen onuradunak gutxienez hamar (10) urtez instalazioaren jabetzari eutsi beharko dio, funtzionamendu-egoera egokian, eskaeran adierazitako zerbitzuak (karga elektrikoa edo erregai alternatiboak) eskainiz eta programa honi dagokion justifikaziorekin. Arestian adierazitako epea bete gabe dagoela onuradunak laguntzaren xede diren instalazioak eta ekipoak besterentzen baditu, salmentaren kontratu-dokumentuan esanbidez adierazi beharko du inbertsio horrek 2020ko EEEn Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programaren diru laguntza jaso duela. Horretaz gain, jabe berriari jasotako diru laguntzaren eta baldintza orokor hauetan ezarritako betebeharren inguruko informazioa eman beharko dio. Era berean, jabe berriak edo erosleak konpromisoa hartzen du diru laguntza eman zen helbururako erabiltzeko eta funtzionamendu egokian edukitzeko, gutxienez, aipatutako epea bete arte. Horrela ez balitz, EEE diru laguntza osorik baliogabetzeko espedientea irekitzeari ekingo lioke.

Nolanahi ere, birsalmenta edo besterentzea erabakiz gero, EEEri jakinarazi beharko lioke, diru laguntza jasotako instalazioak eta/edo ekipoak saltzeko kontratu-agiria sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere.

Erosleak, aipatutako besterentzeari dagionez, agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, diru laguntzaren onuradunak jasotako diru laguntza itzultzeko betebeharra duela konpromisoa hartzen du.

- j. EEE hala eskatzen baldin dio, onuradunak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazio lanak egiteko ere, lau (4) urteko epean ibilgailuen eta material mugikorraren kasuan eta hamar (10) urteko epean gainerako ekintza edo proiektuetarako, EEEk diru laguntza ematen duen egunetik kontatzen hasita.
- k. Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEEri.
- l. Eman daitekeen diru laguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEEk eska diezaiokeen informazio guztia emango du onuradunak.
- m. Jarraian, EEE Energiaren Euskal Erakundearen informazio eta komunikazio betekizunak edo baldintzak behar bezala betetzeko jarraibideak zehazten dira, diru laguntza publikoa jasotzeko lortutako betebeharrak era efektiboan bete ditzaten diru laguntzen onuradunek.

Egingo diren informazio eta komunikazioaren inguruko neurri eta jardura guztiek eskatzen dute onuradunaren ezagutza, Energiaren Euskal Erakundearen laguntzari dagokionez. Horretarako:

- Paperean, webgunean, App-en edo ikus-entzunezkoan egingo den jardura orok eduki beharko du berriazko aipamen edo erreferentzia hau: proiektu hau diruz lagundu da Energiaren Euskal Erakundearen laguntza programaren barruan. Euskarri horietan Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa jarriko da. Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa eskuragarri izango da EEEren webgunean, formatu bektorialean eta gaurkotuen egongo den azken bertsioan.
 - Ibilgailu motordunek pegatina edo binilo bat eraman beharko dute, diru laguntzaren adierazgarri, Energiaren Euskal Erakundeak emango duena, ibilgailuaren atzeko aldean edo leku ikusgai nabarmen batean ziklomotorren kasuan.
 - Karga elektrikoa egiteko gunetan Energiaren Euskal Erakundeak emango duen kartel adierazgarri bat jarriko da, diru laguntza jaso duen instalazioan egongo dena leku nabarmen batean eta ikusgai.
 - Bizikletak maileguan hartzeko edo segurtasunez aparkatzeko sistema publikoek eduki beharko dute ikusgai eta leku nabarmen batean Energiaren Euskal Erakundearen logotipoa, diru laguntza jasotzen duen instalazioan honako legenda elebidun honekin: Laguntza programa / Programa de ayudas.
 - Proiektu berezietan; zehazki, erakusgarri izan litekeen instalazioan, Energiaren Euskal Erakundeak emango duen kartel adierazgarri bat jarriko da, diru laguntza jaso duen instalazioan egongo dena leku nabarmen batean eta ikusgai.
- n. Laguntza-deialdi honen arabera diruz lagundutako ibilgailu baten jabeak, EAEko udalerrri batean zirkulazioaren gaineko zerga (Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga) altan izatera behartzen du, gutxienez lau (4) urtez jarraian. Ez-betetze kasuan, onuradunak jasotako laguntza itzuli beharko du.
 - o. Gauzatutako eta diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa EEEren eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.

13. Ez betetzea eta dirua itzultzea

Jasotako diru laguntza osoaren edo zati baten itzultzeko ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari %25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kantitate bat esaten ez badu), diru laguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, LGSen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa alde edo partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako LGSen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio irizpideak kontuan hartuko dira.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedienteak ireki, eta diru laguntza erabatekoaren edo zati baten ezeztapena eta itzuli egin beharko litzaioke EEERI, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betetz: 1/1997 Dekretu Legegilean xedatutakoari jarraiki eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru laguntzen bermei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, diru laguntza alde edo osorik itzularazteko, EEERIko zuzendari nagusiak du.

14. Informazio klausula eskatzaileei

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak Babesteari buruzko 2016/679 EB Erregelamendua betetz)	
Tratamenduaren erantzulea	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) Tel.: 94.403.56.00 kontaktua DPD: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure laguntza eskaera egikaritu eta kudeatzea, eta, bidezko bada, zure emakidaren ondorioz ezartzen den harremana egikaritu eta kontrolatzea. - EEERekin harremanetan jartzeko hautatutako hizkuntzari dagokionez, betetzea derrigorrezkoa bada ere, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika eta estrategien esparruan erabiliko da datua, eta monitorizazioari eta estatistikari begira baino ez da baliatuko.
Tratamenduaren legitimazioa eta kontserbazioa	Interesdunaren baimena, eskaera aurkeztearekin batera adierazia. Informazioaren kontserbazioa: eskaera aztertzeke epearen eta aplikatu behar zaizkion lege-epeen barruan. Laguntza ematen bada, datuak emakida-espedientearen bilduko dira, eta emakida indarrean dagoen bitartean kontserbatuko dira, eta, ondoren, aplikatu beharreko lege-epeen barruan.
Lagapenen hartzaileak	Alor horretan eskumenekoak diren kontrolako erakunde eta agintari autonomiko edo lokalak.
Interesdunen eskubideak	Datuetan sartzeko, datuak zuzendu, ezereztu eta mugatzeko, eramangarritasuneko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzu EEERIko DPD atalari "datuak babesteko eskubideak baliatzeari" buruzko idazkia bidaliz, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etor daitezkeen neurrian.
	Emandako baimena kentzeko eskubidea dute interesdunek.
	Interesdunek Kontrol Agintarien aurrean erreklamatzeko (www.avpd.eus) Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta www.agpd.es Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) eskubidea dute.
Onuradunak konpromisoa hartzen du bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketarekin, eta, bidezko bada, ondorengo egikaritzapenarekin, lotutako edozein pertsona fisiko edo juridikoren edozein datu pertsonal EEERI eman aurretik, dagokion pertsona fisiko edo juridiko horri alde aurretik adierazitakoaren berri emateko eta EEERI datu pertsonalak modu egokian lagatzeko aplikagarriak diren gainerako betekizunak betetzeko.	

15. Azken xedapenak

1. EEEn erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEn kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.
2. 2020ko EEEn Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programa honek emandako diru laguntzari esker egiten diren instalazioen irudien erabilera egiteko eskubidea du EEEn.
3. Onuradunak, eskabidearen kudeaketan, aurkeztuko duen dokumentazioan edo informazioan egon daitezkeen akatsen edo errakuntzen erantzukizuna harena baino ez da izango, baldin eta eragiten badie zuzenean diru laguntza eskaera aintzat hartu edo ez hartzeari eta/edo EEEn eman beharko duen diru laguntzaren kantitateari. Horrexegatik, hain zuzen ere, diru laguntza emateko ebazpenean kontuan hartzen den gastuan egon litezkeen aldaketak, gastu efektiboaren gehikuntzan, ez dira inola ere berrikusiko, zenbatekoa areagotzeari begira.
4. Oinarri hauetan azaltzen diren diru laguntzei honako honetan xedatutakoa aplikatuko zaie:
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra;
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorri buruzko Arautegia onartzen duena;
 - 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena;
 - Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko UE 1407/2013 Erregelamendua, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua eta 108. artikuluen aplikazioez diharduena, minimis diru laguntzei lotuta;
 - Batzordearen 2012ko apirilaren 25eko UE 360/2012 Erregelamendua, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua eta 108. artikuluen aplikazioez diharduena, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei emandako minimis diru laguntzei lotuta;
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena;
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena;
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
 - Aplikagarri izan daitezkeen tokiko, autonomi erkidegoko, estatuko edo Europako beste edozein araudi.

